

## **HARREMANAK:**

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa izango da bezeroekin harremana mantentzea. Bezero horiek gure enpresarekin izango duten harremanak eragin handia izango du bezero horiek enpresarekin izango dute esperientziarekin.

Gure kasuan, bezeroak pisuak alokatzen dituen eta pisua alokatzea nahi duten ikasleak dira. Izan ere, bitartekari lanak egitea baita gure lana. Pisua alokatzen duen horrek gure plataforman bere pisua iragarki gisa duenez, hileroko komisio bat jasoko dugu. Gero eta bezero gehiago eduki diru-sarrera gehiago izango ditugu. Alegia, gero eta bezero gehiago izateak alokatutako etxe gehiago daudela esan nahi du.

Gure proiektuaren kasuan, harremana automatizatua eta pertsonala izango da. Alde batetik alokatzeko, pisukideak aurkitzeko eta pisua alokagai jartzeko prozesu dena webgunearen bitartez egingo dira, beraz automatizatua izango da. Baina kontratuak sinatzera gure bulegora etorri beharko dira. Horretaz gain galderarik badute gure bulegora etortzeko aukera izango dute ere.